

Donostia Hiriko 42.Nazioarteko Txapelketa aurkeztu da

Txapelketa nagusian izena eman duten bost jokalaririk onenek txapelketa azkarra jokatuko dute apirilaren 15ean Udalbatza aretoan

Donostiako alkate Eneko Goiak eta Gipuzkoako Xake Federazioaren presidente Fernando Markinak Donostia Hiriko 42.Nazioarteko Xake Txapelketa aurkeztu dute. Eta txapelketa hau Donostiako Karmelo Balda Frontoian Gros Xake Taldeak duen instalazioetan egingo da apirilaren 14tik 20ra.

Aurtengo ediziorako dagoeneko 130 jokalaririk izena eman dute, eta bigarren urtez jarraian, txapelketak beste bi txapelketa azkar hartuko ditu. Horrenbestez, apirilaren 15ean, astelehenean, 10:30tik aurrera, Udalbatza aretoan blitz txapelketa bezala ezagutzen diren bi txapelketa jokatuko dira.

Lehendabiziko blitz txapelketa "Euskal Xake Federazioa Torneoa" da. Bertan, Nazioarteko Txapelketan izena eman duten bost jokalaririk onenek eta Gipuzkoako txapeldunak parte hartuko dute. Bigarren txapelketa azkarra "Donostia Gazte Torneoa" da eta, bertan, Donostiako kadete eta alebin mailako 40 jokalaririk onenek parte hartuko dute.

Donostiako alkate Eneko Goiak, Gipuzkoako Xake Federazioak berriro bi txapelketa horiek Udaletxean antolatzeke egin duen lana azpimarratu du, eta honakoa gaineratu du: "Duela ehun urte munduko xake jokalaririk onenak Donostiako Udalbatza aretoan jokatzen zituzten partida handiak. Eta garai horiek gogora ekartzeko, eta xakeak hirian duen zaletasuna eta garrantzia azpimarratzeko asmoz Udaletxean berriro ere partidak jokatzeke aukera egotea aukera polita izan zitekeela ikusi genuen".

Horiek horrela, Eneko Goiak segidakoa esan du: "Udaletxearen erakin honek eta xakeak harreman estua izan zuten XX. mendearen hasieran. Garai horiek ekartzeko eta Udalbatza aretoa berriro xakearen mapan jartzeko helburuarekin txapelketa azkar hauek antolatzea bururatu zitzaingun elkarlanean. Izan ere, bai xakea bai Udaletxearen eraikinari balio erantsia ematen dioten ekimenak dira".

Halaber, apirilaren 18an, ostegunean, Karmelo Balda Pilotalekuan Euskadiko Selekzioaren partida hartuko du. Bertan, Euskadiko jokalaririk onenak ikusteko aukera egongo da.

Gipuzkoako Xake Federazioaren presidente Fernando Markinak honakoa azpimarratu du: "Udalak eta Federazioak esfortzu handia egin dugu elkarlanean txapelketari bultzada emateko. Izan ere, Donostia beti izan da Xakearen munduan erreferente bat eta hala jarraitzea nahi dugu. Hortaz, Udalarekin batera Nazioarteko Txapelketari ikusgarritasuna eman nahi izan diogu aipatutako ekimenak antolatuz. Eta horiek guztiak doako ekimenak dira".

Nazioarteko Txapelketa apirilaren 13an 17:00etan hasiko da eta 9 erronda jokatuko dira astean zehar, apirilaren 20an finala jokatu arte. Parte-hartzeari buruz, Fernando Markinak segidakoa nabarmendu du: "Bost Maisu Handik parte hartuko dute - espainiarra, kubatarra, txiletarra, frantziarra eta armeniarra -, eta gainera, beste hiru Nazioarteko Maisuk ere parte hartuko dute. Guztira 11 herrialdeetako jokalaririk parte

Donostia Oihartz Nizta de prensa



hartuko dute: Txile, Kuba, Venezuela, Argentina, Armenia, Italia, Britainia Handia, Frantzia, Grecia, Danimarka eta Holanda.

Donostia, 2019ko apirilaren 11